

**Euskal subjektu literarioaren kontzientzia
bikoitzaren genealogia baterantz:
Antzinako Erregimeneko zenbait euskal
poemaren izenak eta burdinaren topikoa**

**Hacia una geneología de la doble conciencia del sujeto
literario vasco: sobre los nombres de algunos poetas
vascos del antiguo régimen y el tópico del hierro**

**Vers une généalogie de la double conscience du sujet
littéraire basque : sur les nomes de quelques pòemes
basques sous l'ancien régime et le topic du fer**

**Towards a genealogy of the Basque literary subjects
double consciousness: on the names of some ancien
régime Basque poems and the iron (age) topic**

BIJUESCA, K. Josu
Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2019-01-25
Noiz onartua: 2019-03-07

Lan honen helburua da Antzinako Erregimeneko euskal literatura penintsularrean (eta atlantikokoan) antzemandako kontzientziaren genealogia baterako proposamena eskaintzea. Horretarako XVI-XVIII. mende arteko euskal poesiaren alde bi arakatu dira: lehenengo, hizkuntza aipatzen duten poemen izenei arreta jarri eta formazio diskurtsibo inperial hispaniarretik sorturiko biolentzia sinbolikoarekiko harremana aztertu da; ondoren, poema horiek burdinaren topikoa nola aipatzen duten aztertu da, formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak euskaldunei buruz eraikitako irudi estereotipatu hori euskal subjektu literarioak ere bereganatu izanaren zeinu delakoan.

Gako-hitzak: Euskal subjektu literarioa, XVI-XVIII. mendeak, poemen izenak, kontzientzia bikoitza, burdinaren topikoa.

El presente estudio tiene por objeto ofrecer una propuesta para una genealogía del fenómeno conocido como doble conciencia detectada en la literatura vasca del Antiguo Régimen en su dimensión peninsular y atlántica. Para ello se han analizados dos aspectos de la poesía vasca de entre los siglos XVI y XVIII: primero se ha reparado en los nombres de los poemas que mencionan la lengua vasca y se ha estudiado su relación con la violencia simbólica surgida de la formación discursiva imperial hispánica; en segundo lugar se ha analizado el modo en que esos poemas tratan el tópico del hierro como signo de que también el sujeto literario vasco ha interiorizado la imagen estereotipada que la formación discursiva imperial hispánica ha construido sobre los vascos.

Palabras clave: Sujeto literario vasco, siglos XVI-XVIII, nombres de poemas, doble conciencia, tópico del hierro.

Cette étude a pour objet de proposer une généalogie unifiée de la littérature basque de l'Ancien Régime dans la zone péninsulaire et atlantique. On a ainsi analysé deux aspects de la poésie basque entre les XVI^e et XVIII^e siècles : on s'est d'abord intéressé aux noms des poèmes qui mentionnent la langue basque et on a étudié leur relation avec la violence symbolique issue de la formation discursive impériale hispanique ; en second lieu on a étudié la manière dont ces poèmes traitent le thème du fer comme signe du fait que le sujet littéraire basque a lui aussi intériorisé l'image stéréotypée que la formation discursive impériale hispanique a créée chez les Basques.

Mots-clés : Sujet littéraire basque, XVI^e-XVIII^e siècles, noms de poèmes, double conscience, thème du fer.

This paper aims at proposing a genealogy of the double consciousness as detected in ancient regime peninsular (and Atlantic) Basque literature. For that purpose two aspects of Basque poetry from 16th to 18th century have been addressed: section one focuses on poem

names mentioning language while their relation to the symbolic violence originating from the Hispanic imperial discourse formation is tracked down; section two analyzes how the iron (age) topic is mentioned by those poems as a sign of the fact that also the Basque literary subject has internalized this stereotypical image of Basque people constructed by the Hispanic imperial discourse formation.

Key words: Basque literary subject, 16th-18th centuries, poem names, double consciousness, the iron (age) topic.

Mugatik honako Euskal Herria poetarik gabeko lurraldetzat irudikatu zuen formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak formazio horrek berak urrezko aroa bere buruarentzat lortu zuen unean, XVI-XVII. mendeetan. Euskal literaturari buruzko irudikapen hori iraunkorra eta aldagaitza izan bada ere, orduko literaturaz eta poesiaz dugun ezagutzak badu sendotasunik nahikoa jasotako iritzi hori kritikoki aztertzeko¹.

Antzinako Erregimenean Euskal Herri penintsularrean idatzitakoa oso modu traketsen transmititu zaigula ikusirik eta transmisio erkin horren ondorioz orduan idatzitako guztia nekez ezagutuko dugula ontzat emanik ere, bada zenbait arrazoi indartsu orduko euskal literaturaren berrazterketari ekiteko.

Lehen arrazoia ezagutzaren alde enpirikoari dagokio. XIX eta XX. mendeetan zeharo ugaritu da testu poetikoen edota literarioen agerpena, eta XXI. mende hasiera honetan ere badirudi jakintza enpirikoaren iturri hori ez dela agortu. Hala ere, ditugun poema horiek eskaintzen duten irudia multzo sakabanatu eta desegituratu batena da, hau da, berariazko alor literarioa osatzea lortzen ez duen anabasarena, eragile edo *agente* aipagarririk ez duen literatura batena, ibilbide laburreko edo unean uneko ekarpenak soilik egiten dituzten idazle sarritan anonimoena.

Lazarragaren euskarazko lanak agertu direnetik, ordea, irudi hori bera ere auzitan jartzeko modukoa da, Larreako idazlea nolabaiteko agentziarako (eragile izateko) borondatea erakusten duen norbait denez gero. Horrekin batera, euskarazko diskurtso poetikoaren subjektu izateko nahia ere agerikoa da Lazarragarengan, bai idatzitakoaren kopuruak horixe erakusten due-

¹ Oraingo hau azken urteotan landuriko kezka bertsuari erantzuten dion urrats berria da. Hemen garatu ez den zenbait azalpen, bai eta oinarrian dituzten irizpide teoriko-metodologikoak ere, lehendik argitaraturiko artikuluetan aurki daitezke (Bijuesca, 2010, 2013 eta 2013-2014). Oraingoan landuriko gaiaren harira sarri agertuko dira artikuluen horien erreferentziak. Barka bekit neure burua horrenbeste aldiz aipatu izana, behinola esandakoa berriro ez errepikatzea denez gero horretarako arrazoia. Ikuspegi teoriko-metodologikoak direla eta, soilik hemen lehen aldiz erabiltakoak azalduko dira, batez ere kontzientzia bikoitza deritzon horri dagokiona, bigarren atalaren hasieran. Artikulu hau Deustuko Unibertsitateak onartu eta diruz lagundutako Euskal Gaiak ikertaldearen ikerrillean garatu da.

lako, bai eta bere buruari «el poeta» deitu izanak interpretazio hori zilegi egiten duelako.

Antzinako Erregimeneko Euskal Herri penintsularrean sorturiko literatura eta poesia berraztertzeke bigarren arrazoi indartsua epistemologiko-metodologikoa da. Globalizazioaren aldi honetan eta batez ere (post)kolonialitatearen eta multikulturalitatearen esperientziak aztertzeke garatu diren ikuspegi teoriko-metodologikoeke tresna aproposak garatu dituzte diglosia egoeran murgilduta bizi izan diren hizkuntza eta literaturetara hurbiltzeke. Alde horretatik ere zenbait urrats emana da dagoeneko eta honako hausnarketa hau ere bide horretatik abiatuko da.

Bada zenbait urte Monarkia Katoliko espainiarraren formazio diskurtsibo inperialak euskal literaturarekin zuen harreman dialektiko-dialogikoak (Bakhtinen hitzetan esatearren) nire arreta erakarri zuenetik. Oraingoan ere testuinguru berorretan txertatzen da ondoren etorriko dena, izan ere harreman dialektiko-dialogiko horieke emaitza diskurtsibo ugaritan utzi zuten aztarnarik. Emaitza horien artean XVI-XVIII. mende arteko euskal poemen izenak ere badira, batez ere izenean bertan hizkuntza aipatzen denean. Era honetako izenetara mugatuko da ondorengo azterketa.

Aldi berean, oraintsu idatzi dudan zerbait zehazteke eta zuzentzeke ere baliatu nahi nuke aukera hau. Larramendiren *euskara* izeneko poema dela eta, zera nioen: «burdina eta Euskal Herria lotzen dituzten pasarteak ugari dira gaztelaniazko literaturan, baina ez euskarazkoan» (Bijuesca, 2013, 595). Usteak ustel oraingoan ere, burdinari buruzko aipamenak nik orduan uste baino ugariagoak baitira XVII-XVIII. mendeetako Euskal Herri penintsularreke (edo hobe atlantikoko, amaieran ikusiko denez) poesia idatzi edo «jasoan». Burdinaren topikoa literatura horretan aztertuz, euskal subjektu diskurtsiboaren kontzientzia bikoitza deitu fenomenoaren eta egoeraren genealogia baterako oinarriak proposatu nahi nituzke.

Esan beharrik ez dago subjektu euskaldunaren adierazpenek hemen mugatu den diskurtso multzoa askogatik gainditzen dutela. Euskal kulturean horren garrantzitsu izan diren apologisten diskurtsoan bada subjektu euskaldun garatu bat, zeinaren konplexutasun eta kontraesanak dagoeneko ondo azalduak izan diren, modernitatearen definizio multikultural batean txertatzearekin

batera (Gabilondo, 2012). Gainera, euskal subjektu hegemonikoaren garapenari buruzko proposamen gogoangarririk ere badugu, mugaren alde bietan sorturiko diskurtsoan oinarritzen badira ere (Apalategi, 2013; Atutxa, 2014, 74-149). Oraingo helburua Euskal Herri iberiarreko XVI-XVIII. mende arteko diskurtso poetikoaren mugetan arakatzea da, gogoan izanik esparru hori ere apologistek osaturiko formazio diskurtsibo beraren parte dela.

1. XVI-XVIII. mende bitarteko euskal poema batzuen izenez: *cantar vascongado / vizcaíno / en vascuence, canción [en lengua] vascongada / vizcaína, romance [en] vascuence, vascuence, euskara*

XVI-XVIII. mende arteko poema ugari ezagun ditugu norbaitek idatziz bildu edo sortu zituelako. *Literacy* edo kultura idatziaren eremuan agerturiko poema horiek idazle edo biltzaileek diskurtso poetikoari atxikitako baloreen aztarnez inguraturik daude. Batzuetan poemaren epai kritikoa esplizitua izango da, Iruñean 1610ean idatzitako euskarazko erromantzearen kasuan bezala (laster izango da horretara itzultzeko aukera). Baina halako epairik ez dagoenean ere, poema sailkatzeko erabilitako terminologiak berak nolabaiteko epaia dakar berarekin. Aurkezten zaigun poemari buruzko iritzia tituluaren beraren bitartez adieraz liteke, batez ere titulu horretarako generoa eta hizkuntza aipatzen duten hitzak aukeratu badira. Hizkuntzen auzia XVI-XVIII. mendeetan eztabaidarako gune bizienetarikoa izanik, eztabaida horren oihartzunak aldiko literaturan ere ozen entzun daitezke².

Diskurtso literarioaren osagai mugatua izanik ere, idatzizko eremuan agerturiko poemak izenei jarri nahi izan diet arreta, hain zuzen ere poema horiei buruzko ikuspegi ideologiko nabarmenak adierazten dituztelako euren laburrean ere. Horretarako poema horietatik ondorengo datuak bildu eta sailkatu ditut: poemaren izena eta, ezaguna denean, egilea; testuinguruan duen aipamena; garaiko iturria; urtea, eta erabilitako bertsoa (jato-

² Ikerketaren lehen atal honetako behin-behineko emaitzak Monumenta Liguae Vasconum II. Jardunaldietan aurkeztu ziren eta jardunaldi horien akten artean ere argitaratuko dira.

rizkoa ala XX-XXI. mendeetako edizioen bat). Datu horiek guztiak eranskinetako tauletan aurki daitezke. Poema izenen ibilbideari arreta jartzean, euskarazko diskurtso poetiko idatziari dagokion subjektuaren bilakabidea antzeman liteke, formazio diskurtsibo hispaniarrarekiko negoziazio, erresistentzia eta imitazio estrategietan gauzatua.

Eranskinetako tauletan jasotako datuei adituz gero, ageriko da euskarazko poemak izendatzeko erarik zaharrena *cantar* dela: *cantar vascongado*, *cantar vizcaíno*, *cantar en vascuence*. XVI. mendeko iturrietan jaso, ez dirudi mende horretako mugetatik haratago doanik. XVII. mendeko lanetan ageri denean ere (Isasti, *Compendio guipuzcoano*), iturri zaharragoetan oinarritu direlako ageri da (Zaldibiarengan edo Zaldibiak berak erabilitako iturriren batean). Gogoan hartzekoak dira XVI. mendean zehar eraikitzen ari zen alor literario espainiarretik zetozen epaiak, alegia «No lo estimo en un cantar vizcaíno» errefracua bezalako zentsura edo santzioak. Pentsatzekoa da era horretako epaiak izango zutela eraginik *cantar* hitzaren gainbeheran. Orduetik aurrera formazio diskurtsibo inperial hispaniar hegemonikoaren begirada entengabe sentiaraziko zaio subjektu euskaldun subalternoari.

Cantar horren antzekoa dugu *canción* (*canción en lengua vascongada*, *canción vizcayna*, *canción bascongada*). *Cantar* hitzarekin gertatu bezala, hitz honek ere pairatu behar izan zituen epai kritikoak, kantatzeko zena benetakoa poesiaren eremutik kanpo zegoelakoan. Iritzi horretakoa zen *Coronas del Parnaso* liburuaren egilea (Salas Barbadillo, 1635, 4v-5r). XVII. mendean *canción* hitzaz *cantar* zaharkitua ordezkatu izanak ez zion onurarik ekarri subjektu euskaldun subalternoari. XVII. mende amaieran Bertso bizkaitarrak deritzenei emandako erantzunean (Lakarra, 1984), Gipuzkoaren izenean gaztelaniaz sorturiko *Respuesta a la canción bascongada que ha salido del Señorío* deituak euskarazko poema *canción vascongada* soiltzat jotzen du, bere buruarentzat *sexta rima* sofistikatua aukeratu eta «en verso español» sortu duela aldarrikatzen duen bitartean, hasieratik bertatik argitzen denez. Euskarazko eta gaztelaniazko poesien arteko *distintzioa* (Bourdieu esango zukeenez) azpimarratzeko borondatea ezin da nabarmenago adierazi.

XVII. mendean ere zabaltzen da *romance* hitza: *romance [en] vascuence*. Taulako *romance* horiek guztiak Eliza katolikoaren ospakizunen inguruan

antolaturiko lehiaketa poetikoen emaitzak dira (*academia*, *certamen* edo *justa* gisakoak), eta denetan euskaraz idatzitakoak gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan idatzitakoekin batera bildu eta argitaratu ziren. Funtsean bilduma horietako poema guztien egitekoa bat bera zen: Trentoko Kontzilioaren ondotik sorturiko ordena sinbolikoari atxikimendua erakustea. Bilduma horietan ere posizio hegemonikoa bereganatua zuen subjektu gaztelaniadunak ez dio uko egingo biolentzia sinbolikoaren erabilerari, subjektu euskaldunaren egoera subalternoa bortizki nabarmenduta. Iruñeko lehiaketan 1610ean aurkezturiko poemei egindako oharrean, Luis de Morales biltzaile eta editoreak ezin du argiago adierazi bere erdeinua euskaraz idatzitako *romance* gehienen aurrean: «No huuo mas de un Romance bueno en bascuence, y no me espanto, que es propio desta lengua faltar en Romãce» (Morales, 1610: 80r). *Romance* hitzaren erabilera horretan aldi berean biltzen dira bi adiera, hizkuntzari dagokiona eta poetiko-metrikoa, eztenkada asmoko dilogia barrokoan. Subjektu euskalduna ezindua omen da bietan. Horren ondoren 1656ko *romance bazqvenze* (*vascuence* egungo idazkeran) bezalako hitz uztarketa oximoron barregarria baino ez da eta poemaren beraren edukiak ere asmo hori bera azpimarratzen du (ondorengo atalean ikusiko denez).

Romance berbaren erabilera erdeinuzko horri emandako erantzun gisa interpreta liteke *vascuence* hitzari ere adiera metriko-poetiko berria erantsi izana. Horren lekuko lehen eta ia bakarra (nik dakidala behintzat) Mikoleta dugu. Alde batetik, *vascuence* hitzaren erabilera horrek formazio diskurtsibo inperial hispaniarraren eraginari ihes egiteko ahalegina adieraz lezake. Formazio diskurtsibo hegemonikoarekin negoziatzen jarrita, subjektu euskaldunak harako *romance* haren pareko izatea nahi lukeen irtenbidea aurkitu du, eta horren bitartez erresistentziarako gaitasuna ere erakutsi du. Baina inondik ere ez du lortu bere burua subordinazio-subalternitate egoeratik ateratzea. Izan ere, Mikoletaren proposamena mende luzez ahaztua eta ia oihartzunik gabea izan da Ingalaterrako artxibo eta liburutegietan. Gainera *vascuence* hitzak kategoria poetiko gisa izan duen garapen gabeziak ez du lagundu euskarari eta euskal poesiari buruzko iritzia aldatzen. Azkenik, *vascuence* hitzaren adiera metriko-poetikoak, *romance* berbaren imitazio eta ordain gisa asmatuak, ezabaezina du *romance* horren aztarna, Derridaren

eran esatearren. *Romance* hitzaren definizioan Erromako inperioaren kontzientzia betea dagoenez gero XV. mendetik aurrera behintzat, *translatio imperii* delako mitoan oinarrituta (ikus Bijuesca, 2013, 589), erresistentzia asmoz sorturiko *vascuence* hori aldi berean subjektu euskaldunaren subal-ternitate egoeraren adierazle ere bada.

Mikoletaren proposamena ia oihartzunik gabekoa dela diot, baina ez oihartzunik batere gabekoa. Jesuiten Salamancako ikastetxean irakasle zela Luis I.a erregearen heriotzaren kariaz idatzitako poemari «mi *vascuence* poético» eta *Euscara* deitzean, Larramendi Mikoletak urratutako bidetik zebilen itxura guztien arabera (Bijuesca, 2013). Poema hori bera *Arte* beranduagokoan bildu eta euskal hizkuntza sortzeko gai zen poema ereduen («*exemplares*») artean txertatu zuen, *hamalaudun* (*soneto*) eta *hamardun* (*décima*) moldeekin batera. Andoaingo jesuitak ez zuen, ordea, ziurtasun erabatekorik erakutsi *euskara* izeneko eredu horren alde. Hiztegi Hirukoitzean *vascuence* sarrerak hitzaren ohiko esanahia baino ez du biltzen, nahiz eta *romance* hitzarentzat *erdara* ordaina eskaintzen duen ez soilik hizkuntza adierarako, ezpada metriko-poetikorako ere, eta halaber *romancero* hitzaren ordeztarategui (liburua denean) eta *erdaren cantaria* («el que los canta [los romances]») (Larramendi, 1745). Formazio diskurtsibo euskaldun honi dagokion subjektuak bere buruaren diferentzia azpimarratzen du, baina bere asmakizunean sinetsiko ez balu bezala. Gainera Larramendik idatziriko *euskara* horretan bertan erabat onartua dago Euskal Herria burdinaren aroko burdinaren lurraldea zela zioen diskurtsioa, Antzinako Erregimenean zehar subjektu inperial hispaniarrak garaturikoa, eta horrekin batera subjektu euskaldunaren egoera subordinatu-subal-ternoa ere bai.

Genero poetikoen ibilbide horretan ez da zaila euskal poesiagintzaren eta formazio diskurtsibo hispaniarraren arteko sigi-saga dialektikoa antzematea. *Cantar* izendapena aski hedatua izanik, ez doa XVI. mendetik haratago izen hori jasotzen duen poema berririk. *Canción* izendapen beranduago erabilia-ekin ere ibilbide bera nabari liteke, bai eta *romance* apurrekin ere. Era b-atera edo bestera, denak izan dira biolentzia sinbolikoaren jomuga. Azken *romance* horiei emandako erantzuna dugu *vascuence* izendapena, haiek be-zala hizkuntzari eta genero poetikoari dagozkion adierak biltzen dituen

(ordura arte ez bezala eta gerora ere ez bezala). Azkenik, *euskara* izeneko generoa agertu da, *vascuence* haren ordaina eta hark bezala hizkuntzari eta genero poetikoari dagozkion adierak biltzen dituena.

Vascuence eta *euskara* izendapen asmatuak (adiera poetikoaz den bezainbatean) formazio diskurtsibo hispaniarrak erabiltzen duen biolentzia sinbolikoarekiko negoziazioaren emaitzak dira, eta erantzun nolabait antsietatezkoak. Alde batetik, euskal diferentzia azpimarratzeko borondatea adierazten dute, baina bestetik, eta aldi berean, eredu duten *romance* horren aztarna ezabaezina ere daramate, eta horren bitartez *romance* horri dioten menpekotasuna adierazten dute. Bidasoaren mugatik honako euskal subjektu literarioak, bere poesia izendatzeko genero izen bat aukeratu behar duenean, inguruko literatura hegemonikoan bilatzen du eredia, pairatzen duen biolentzia sinbolikoaren sorburu den eremuan, alegia, eta horren bitartez harkiko dependentzia agerian uzten du.

Era honetako poesiaren ibilbidea apologisten artean hizkuntzak eginda-koaren parekoa da. Monarkia hispanikoaren administrazioan pribilegiozko posizioa bilatzen duten apologistek euskara euren helburuetarako tresna ideologiko gisa soilik erabili zutela erakutsi du Joseba Gabilondok hustearen irudiaren bitartez: «euskara *hustu* egingo dute apologistek: euskara barne-bizitza duen hizkuntza bezala erabili beharrean, nazio-estatu bat sortzeko, euskaldunen jatorrizko zahartasun-marka edota arrasto gisa defendituko dute latinez eta gaztelaniaz» (Gabilondo, 2012, 23). Hizkuntzaren erabilera horri atxikitako poesiaren ibilbidea, azken emaitza *vascuence* eta *euskara* horietan duena, irtenbiderik gabeko zulo bat bezalakoa da, joko dialektikoaren ondorio zuhur bezain antzua. Estatuak biolentzia mota guztien monopolizatorako joera izanik, tartean biolentzia sinbolikoarena ere bai (Bourdieu, 1997, 107), biolentzia sinboliko horren emaitza den poesia mota batek ez du garapen aukerarik. XVIII. menderako Euskal Herri penintsularreko poesia eremu emankorrenak joko dialektiko horretatik urrun aurkituko dira: alde batetik, batez ere nekazari eta arrantzale euskaldun elebkarrek osatzen duten klase subalternoaren baitan, zeinak oraindik ez dirudien sentibera alor literario espainiarretik datorren biolentzia sinbolikoarekiko eta herri poesiari eusten dion, ahoz hein handi batean; beste alde batetik, elizgizon euskaldunen artean (horietako asko ere jatorria euskaldun elebaka-

rren klase subalternoetan dutenak eta sarritan tokian tokiko prelatuen susmopean daudenak), non deboziozko poema multzoa loratuko den, eta batez ere era guztietako bilantzikoak (gabon kanta edo eguberri kantuak, besteak beste).

2. Burdinaren topikoa: euskal literaturaren kontzientzia bikoitzaren genealogia baterantz

Goragoko atalean zerbait erakutsi bada, zera da: XVI-XVIII. mende arteko euskal poesia penintsularraren bilakabidea zenbateraino baldintzatu zuen monarkia hispanikoaren formazio diskurtsibo inperialaren begiradak: hizkuntzari buruzko santzio eta zentsurak ez ezik, poesiari buruzkoak ere nonahi ageri dira gaztelaniazko testuetan, etengabeko biolentzia simbolikoa gauzatzen dutela (Bijuesca, 2010, 21-34). Begirada horren posizioa hain zen hegemonikoa ezen poeta euskaldunek ere begirada horri erantzunez bezala egin zituzten haien poemetarako izenen eta generoen hautuak. Alegia, poema horien idazleek bazutela alde batetik euren euskaltasunaren kontzientzia, baina beste alde batetik eta aldi berean formazio diskurtsibo hegemonikoaren kontzientzia betea ere bazutela. Aldi horretako poesia idatziak aipaturiko bi kontzientzia horien eskakizunei erantzuten die hein handi batean. Beraz, kontzientzia bikoitza deiturikoa ikuspegi egokia begitantzen da euskal literaturaren eremu honetaz hausnartzeko.

XIX. mende amaieran W. E. B. Du Bois idazle eta pentsalari afrikar-amerikarrak proposaturiko nozio teorikoa izanik, kontzientzia bikoitzak (Du Bois, 2007) dagoeneko aplikazio emankorrak izan ditu euskal literaturaren azterketan. Joseba Gabilondok XX. mende amaieran errealismo magikoaren ildotik sorturiko eleberrigintza aztertzeko erabili du, Du Boisen proposamena euskal literaturaren historian txertatu eta kontzientzia bikoitzaren nozioa honela itzuli ondoren:

[Sentsazio berezia da] kontzientzia bikoitz hau, beti besteen begien bidez norbere buruari begiratze hau, pena eta mespretxu dibertigarrian begiratzen duen mundu baten neurgailuaz norbere arimari

begiratu behar izate hau ([Du Bois, *The Souls of the Black Folk*] 5).
Kontzientzia bikoitz horrek euskal kultura eta historia ere definitu
ditu XIX. mendez gero. (Gabilondo, 2006, 47)

Kontzientzia bikoitzaren nozioak berebiziko egokitasuna du euskal literaturara eta kulturara hurbiltzeko ikuspegi epistemologiko gisa, bere baitan duenez gero alienazio egoerak azaltzeko gaitasuna: «The double-consciousness theory has extended its philosophical reach from its base in the United States to politics around the world as an explanation for a certain kind of alienation experienced by marginalized peoples of many ethnicities and nationalities» (Hancock, 2008, 87). Gabilondoren planteamenduarekin bat eginik ere, zera proposatu nahi nuke orain arte ikusitakoaren arabera: alde batetik, euskaldun penintsularren kontzientzia bikoitza ibilbide luzeagokoa dela; eta beste batetik, eskuartean dudan corpus poetiko honek egungo literaturan identifikaturiko kontzientzia bikoitz horren genealogia baterako zenbait oinarri sendo eskaini lezakeela.

Kontzientzia bikoitzaren presentzia agerikoagoa izango da esku artean ditugun poemetan burdinaren topikoa arakatuz gero. Burdina Euskal Herriarekin etengabe lotzen zen XVI-XVIII. mende bitarteko literatura hispaniarrean. Burdina aipatzeko erak ugariak izanik, oraingo helburuetarako hiru multzo bereiz daitezke: burdinaren ugaritasuna eta berarekin loturiko burdingintza eta armagintza azpimarratzea; euskaldunen izaera burdinaren ezaugarrien arabera irudikatzea; eta burdinaren ugaritasun hori akats edo okerrarekin berdintzea, batez ere hizkuntz okerrarekin (berreziki euskaldunei egotzitako hizkuntza ezgaitasunarekin eta gaztelania okerrarekin), gaztelaniazko *hierro* (burdina) eta *yerro* (okerra) hitzen kidesun fonetikoak dilogiarako eskaintzen duen aukera baliatuta, dilogia dela barrokoaren baliabide gogokoenetarikoa. Proposaturiko bigarren multzoari erreparatu zion Julio Caro Garibayri eskainitako liburuan: «Lo de asociar la dureza del hierro a la dureza del país y de sus gentes, es un tópico en Castilla [...]» (Caro Baroja, 2002, 79). Baina hiru multzoetako adibide ugari aurki daitezke zalantza izpirik gabe Caroren iturri aitortu gabea den *Lo vizcaino en la literatura castellana* ezagunean (Legarda, 1953), batez ere azken honen 21. eta 38. kapituluetan, besteak beste Caro berak aipaturiko adibideak.

Burdinan irudi paregabea begiztatu zuen formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak euskaldunak irudikatzeko, haiei egotzitako ezaugarrietatik asko –hala nola gogortasuna (gorputzekoa nahiz burukoa), liskar eta gudu zaletasuna, hizkuntz baldarkeria– erraz iradokitzeke gaitasuna zuelakoan. Bere burua urrezko aroan kokatzen zuen bitartean, formazio diskurtsibo inperial horrek berak gaztelaniadun eta aristokratikoa (eta gehienbat gizonetzkoa) zen subjektua hobesten zuen diskurtso poetikorako (Mariscal, 1991), bai eta halakoa ez zen orori diskurtso poetikoaren subjektu posizioa betetzeko aukera eragozten ere. Errepresentazio objektu bihurturik euskaldunak, urrezko aroko subjektu aristokratiko hispaniarrak burdin aroan dagoen burdin herrialdean irudikatzen ditu, beste leku batean erakusten saiatu nintzenez³. Beraz, nekez harrituko da inor euskaldunak aipaturiko estereotipo horien arabera irudikaturik agertuko badira gaztelaniazko literaturan. Legardaren liburua esandakoaren lekuko ezin hobea dugu.

Oraingoan, ordea, euskal literaturak berak eskainitako irudikapenari erreparatzea dagokigu. Esku artean dugun corpusa arakatzek emaitza aski deigarriak eskaintzen ditu. Izan ere, burdinaren irudia eta honi atxikitako estereotipoen iradokitzea ez zaio arrotza diskurtso poetiko euskaldunari. Burdinaren lehen agerpena, baina, XVII. mendekoa dugu, 1619ko *Canción en lengua vascongada o vizcayna* sortan (Ulibarri, 2011). Hortaz, pentsatzekoa da ordura arteko euskal diskurtso poetikoaren subjektuak burdinaren irudiari itzuri egin ziola bere burua irudikatzeko orduan, XVII. mendetik aurrerakoarenak ez bezala. Hau da, *cantar* sailean bilduriko poema multzoan (zeintzuetatik asko Erdi Arokoak diren, itxura guztien arabera) oraindik ez da horren ageriko formazio diskurtsibo inperial hispaniarraren begiradaren eragina, burdinaren topikoaren erabileraz den bezainbatean behintzat. XVII. mendetik aurrera, ordea, begirada horren eraginak zenbait

³ Paul Gilroyk itsasontziaren kronotopoa eskaini zuen Atlantiko Beltza deritzon historia kulturaz teorizatzeke irudi gisa (Gilroy, 1993, 4). Haren antzera, Antzinako Erregimeneko Euskal Herri penintsularreko literaturaz hausnartzeko, eta batez ere periodizaziorako irizpide epistemologik bezala, burdin aroaren kronotopoa proposatu dut (Bijuesca, 2013). Halaber, gogoan izan beharrekoa da formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak subjektu euskalduna diskurtso literarioaren objektu posizioa zokoratzen duela, diskurtso jaso eta dotore horren subjektu izateko gai ez delakoan (Bijuesca, 2013-2014).

adibide aipagarri utzi ditu. Hau da, une horretan hasita subjektu euskalduna gero eta prestuago agertuko da formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak eraiki dion irudia bereganatzeko, aldi berean subjektu eta objektu posizioak betetzen dituela euskaldunek sorturiko diskurtsoan bertan ere.

1619ko *Canción en lengua vascongada o vizcayna* Maiatzeko Gurutze eguneko ospakizun baten kariaz dago ondua, poema biltzen duen liburua-ren tituluak adierazi bezala: *Sermón del día y fiesta de la invención de la santa Cruz. Predicado en el Colegio del Angel de Carmelitas Descalços de Sevilla*. Sermoia irakurtzeko aukerarik izan ez dudan arren, euskarazko poema sermoi horren mamiaren bertsozko bertsio gisa aurkezten da: «que contiene la sustancia deste sermón, hecha por un religioso de la misma nación y aficionado del autor». Liburuaren azalak dio sermoigilea frai Domingo de Santo Tomas pasaitarra zela baina poemaren idazleaz ez da beste berririk ageri. Maiatzeko Gurutzearen aitzakian euskaldunen (*Bizkaiko jendeak*, poema osoan zehar behin eta berriro) fedearen laudorioa eskaintzen den bitartean, horren harira *vascocantabrisimo* delakoaren ezaugarri nagusiak bata bestearen atzetik ageri dira: euskaldunen antzinatasuna, Tubalen ondorengotza, fedearen antzinatasun eta garbitasuna, eta erromatarren alferrikako ahalegina euskaldun fededunak menperatzeko. Azken ideia honen inguruan erabiliko da Bizkaiko burdinaren topikoa: «Jau-naq criatu ceban / Vizcayan burdina, / armahaq eguiteco / galçayru gordina» (Ulibarri, 2011, 368). Eta horrekin batera, armagintzari buruzko aipamen zuzenak: Bilboko ezpatak, Elorrioko lantza, gezi eta azkonak, Plazentziako (Soraluzekoak, alegia) moskete eta baleztak, jatorri zehatzik gabeko matxeteak. Burdinaren topikoaren erabilera onbera da hemen ageri zaiguna, funtsean apologisten irizpideetan oinarriturikoa. Baina inperioaren testuingurua ez da begiz galdu beharrekoa: monarkia hispanikoa izanik fede katolikoaren defentsan buruzagi, euskaldunek haren abangoardia bezalako bat osatuko lukete. Ez zen, nolana, poema (eta oinarrian duen sermoia) Sevillan ondu, metropoliaren eta kolonien arteko ate nagusian alegia, behar bada bertan egokitutako euskaldunen diaspora zuela behin-behineko hartzaile, non ez ziren gutxi euren burua monarkia katolikoaren zerbitzura jarritako soldadu eta elizgizonak, eskribau, merkataria (baita burdinaren merkataria) eta itsasgizonekin batera.

Egiaren laudoriozko kantua (1638?) ere *canción vizcaína* multzokoa da (Urgell, 1986; Arejita, 1988). Hemen, ordea, ez da ageri burdinaren topikoaren erabilera zuzenik, nahiz eta poemak euskaldunen gudurako gaitasuna duen edukia mamia. Eta berriro ere monarkiaren interes geopolitikoaren zerbitzura eta harekiko leialtasunean erabili delako laudatzen da gaitasun militar hori Hondarribiko borroketako heroien bitartez.

Burdinaren topikora bete-betean jo duena 1656ko *Romance bazqvenze* izenekoa da (Altuna 2006), topikoaren alde iraingarrietarikora jo ere. Sevillakoaren antzera, poema hau ere fedearen testuinguruan sortua da, bildu duen liburuen tituluak adierazi bezala: *Iusta poética consagrada a las festivas glorias de María en su Immaculada Concepción mantenidas en la parroquial iglesia de Santa María del Mar de la ciudad de Barcelona*. Ama Birjinaren ospakizun honetarako, hizkuntza askotan sorturiko poemak aurkeztu ziren, *justa poética* izeneko lehiaketetan gertatu ohi zenez. Euskarazko *Romance bazqvenze* delakoa horietako bat dugu. Francisco Bustamanteri zor zaion zortzi ahapaldiridun poema honetan burdinaren topikoa seigarrenean ageri da. Ama Birjina jaiotzez garbiaren oinetan datzan sugeaz diharduela, hona hemen ahapaldia, idazlearen beraren itzulpen eta guzti:

*Vere oñetan biçi gàve
Balinbàdago gayçoà,
Nola estu orày equsten
Verris dela burriña minçua?*

*Si está a sus pies sojuzgado
Por soberano precepto,
Ociosa es la duda, y es
Mas evidente su yerro.*

(Altuna, 2006, 56)

Gaztelaniazko eta euskarazko bertsioren arteko aldeaz gain, deigarria da euskarazkoak sugearen mintzoaz dioena: «burriña» dela. Euskaraz zentzuga-bea den esaldi hori gaztelaniatik soilik uler liteke, gorago aipaturiko *hierro* eta *yerro* hitzen arteko dilogiatik, hain zuzen ere. Beraz, sugearen mintzoa okerra dela ulertu behar da. Gaztelaniazko bertsiok aditzera ematen duenaren arabera, sugearen okerra Ama Birjinaren sortzezko garbitasuna zalantzan jarri izanean datza. Euskaraz idatzitako *Romance bazqvenze* honetan –titulua bera oximoronikoa eta txantxetakoa duena, gorago erakutsi bezala, ezinezkotzat jotzen baitzen euskaraz *romance* onik egitea–, ez dago zalantzarik burdinaren

aipamenak burdinaren topikoaren alde iraingarriaren oihartzunak dituela, eta beraz euskaldunen alteritatearenak, euskararen beraren barnetik oraingoan. Interpretazio honetaz zalantzarik balego, *justa* edo lehiaketa poetiko haren epaileek ezin esplizitukiago adieraziko dute poemak iradokitzen duena *romance* hori biltzen duen liburuan bertan: «El tercero fue admirado / Por lo nuevo y peregrino, / Pues siendo al fin bizcayno / Sin hierro alguno fue hallado. // Bien que los pies no ajustò / Con rigor mucho à su musa, / Mas desta falta le excusa / La aspereza en que nació» (Altuna, 2006, 52).

Segalarien guduaren amaieratik bertatik eta hamarkada oso batez behintzat (1652-1662), Sortzez Garbiaren adbokazioa monarkiaren posizioa ordezkatzeko erabili zen Katalunian (Reza, 2008): guduaren amaierako ospakizunetan Ama Birjina hori irudikatzen zuen eskultura baten eskuetan jarri ziren Bartzelonako hiriaren giltzak Juan Jose de Austria garaileari eskaintzeko, hiriaren berariazko santu-patroiak (gudian zehar katalanen errogatiben eta esker onezko *Te Deum*-en hartzaileak zirenak), eta batez ere Santa Eulalia, ospakizun horietatik desagerrarazten ziren bitartean, diferentzia katalanaren adierazle zirelakoan (Rodríguez de la Flor eta Galindo, 1994, 58).

1656.ean Santa Maria del Mar basilikako kofradiakideek antolaturiko jaialdiaren berri ematen duen liburuan bilduta poema multzo horrek monarkiaren lurraldeetako hizkuntzak jartzen ditu erlijioak –monarkiak ez bezala– zor lezakeen gizarte kohesioaren zerbitzura, hizkuntza horien arteko harreman hierarkikoa argi utzita, gaztelaniari baitagokio posizio hegemonikoa, monarkia hispanikoa bera defendatzaile nagusi duen Sortzez Garbiaren mesedetan. Jaialdiaren ospakizunean berebiziko garrantzia izan zuen basilikaren beraren dekorazioak. Ama Birjinaren enblema lauretanoen erdian Felipe IV.aren erretratua jarri eta erregea Sortzez Garbiaren defendatzaile gisa eta aldi berean legearen ordezkari eta errendituen aita barkatzaile gisa irudikatzen zuen poema bat txertatu zen (Modolell, 1656, 16-17), hau da, aitaren legearen irudia bera, ordena sinbolikoaren gailurra.

Propaganda proiektu honen bitartez monarkiaren lurralde anitzetako biztanleek monarkiarekiko atxikimendu edo leialtasunez mozturiko subordinazioa erakusteko aukera ezin hobea dute, besteak beste, gudua galdu berri duten matxino katalanek eta burdinaren lurraldeko euskaldunek. Francisco

Bustamanteren soslai biografiko ilunean argi dauden ezaugarri bakarrenetari-koak poesia zaletasuna (gaztelaniaz idatzi zituen gehienak) eta jarduera mili-tarra dira (Altuna, 2006, 49). Euskaraz idatzita ez balego, *Romance bazqvenze* horri dagokion subjektua ez litzateke ezertan bereiziko formazio diskurtsibo inperialaren subjektuarengandik. Edo agian zuzenagoa litzateke pentsatzea poema horren subjektua diskurtso inperialarena bera dela baina oraingoan euskaldun plantak eginez, euskaldun gisa jarduteko mugak («burriña minçua») agerian uzteko arriskupean bada ere. Beraz, zuzenagoa litzateke onartzea kontzientzia bakoitzeko subjektua dugula diskurtso poetiko honi dagokiona, hain zuzen ere, euskaldun itxurak egiten dituen subjektu hispa-niar aristokratikoa. *Hierro-yerro* dilogia izanik euskaldunen barbaro kutsua salatzeke baliaabideetariko bat, orain ironikoki dilogia hori euskarara ekartze-ko saioak berak salatzen du subjektu horren kontzientzia bakoitz inperialista.

1688 inguruko *Bertso bizkaitarrek* (Lakarra, 1984) burdin mea dute gaia, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko liskarrekin batera, lehenak eragotzi egin zuelako bigarrenaren oletan behar zen mea hori bere mugetatik ateratzea, agortzekotan zegoelakoan. Burdina gaietako bat izanik, burdinaren topikoaren oihartzunik ez da ageri poema honetan, mea ateratzeko debekuaren aurrean Gipuzkoak erakutsi duen jarrera erasokorraren bituperioari toki gehiena eskainita. Gipuzkoaren izenean emandako *Respuesta a la canción bascongada que ha salido del Señorío* izenekoan, oster, topikoaren alde irain-garrienak bete-bete txertatuko dira, batez ere dilogia ospetsuari dagokio-na (Bijuesca, 2010, 31-33). Baina gaztelaniaz idatzitako poema honen sub-jektua, *Bertso bizkaitarrak canción vascongada* soiltzat jotzen dituen berea *sexta rima* sofistikatuan eta «en verso español» sortu duen bitartean, berriro ere formazio diskurtsibo inperialarenetik bereizezina da.

Vascuence izeneko poemak itzuri egin dio burdinaren topikoari baina ez haien ordain gisa Larramendik asmatu-ko *euskara* izenekoak. Felipe V.aren seme Luis I.aren heriotzaren kari-az onduriko poema honetan Larramendik errege gaztea Martzelo erromatarrarekin parekatu zuen, hots, Augusto en-peradorearen oinordeko izan behar zuenarekin, harako Martzelo hura beza-la gazterik hil zelako. Zeharka, borboitarren leinuko lehen monarka hispa-nikoen aldia Augustoren aldia bizi izandako urrezko aroarekin berdintzen ari da, dinastia berriko erregeei esker burdin aroan bizi izandako Gipuzkoa-

ra ere urrezko aroa heldu dela aditzera emanda. Baina Luis I.a errege gaztearen heriotzak berezkoa duen burdin arorako itzultzea eragin omen dio Gipuzkoari: «Burni edade-a berriz / Dator zorí gaistoàn, / Urre-oriac quen-durican / Burnidún anz illunac» (Larramendi, 1729, 385). *Eneidako* bertso lerro batean oin hartu duela aitortzean, Augustok ekarriko duen urrezko aldiaz eta Martzeloren heriotzaz diharduen pasarteko bertso lerro batean hain zuzen ere, Larramendik (berak baino lehen beste idazle askok bezala: ikus Yates, 1999; Armas, 1986) disimulurik gabe erakusten du aldien mitoa ideologia inperialaren zerbitzura jar daitekeela bai erromatarren artean eta bai Antzinako Erregimenean, monarkia hispanikoa salbuespena ez dela.

Larramendiren poema Salamancan sortua da, bere burua Gaztelako Atenas berrizat duen hirian, alegia (Rodríguez de la Flor, 1989). Monarkiaren zerbitzari fidel, Salamancako unibertsitatea da Antzinako Erregimeneko erreinu hispaniarretan egiaren erregimena ezartzeko legitimitatea aitortzen zaion gune garrantzitsuenetakoa. Foucaulten eran esatearren, botere efektuak dituen egiaren erregimen horren ondorioetako bat da hizkuntzen ordena hierarkikoa ezartzea, zeinaren arabera gorteko hizkuntza ereduari (gero eta erabilera murriztuagoa duen latinarekin batera) gailurreko posizioa dagokion eta besteei posizio subalternoa. Azken horien artean ez zegoen soilik euskara, baizik eta Salamancatik hurbileko Sayago eta beste landa-eskualde zenbaitetako gaztelania ere bai, baserritar ezjakinen edota barbaroen estereotipoaren ereduak sortzeko erabilia luzaro (Pedrosa, 2008). Salamanca horretan bizi du, hain zuzen ere, Larramendik kontzientzia bikoitzaren esperientzia gordina. Alde batetik, formazio inperialak euskarari eta euskaldunei buruz hedatzen duen «egia» gezurtatu eta bere lehen hizkuntza sutsuki defendatuko du. Baina bestetik, burdinaren topikoaren osagai den burdin aroa aipatzean, formazio diskurtsibo inperial hispaniarrak eraikitako aroen mitoa onartu du *euskara* poeman, eta horrekin batera mito horri atxikitako zama ideologiko guztia.

Burdinaren topikoak izan zuen erabilerarik Larramendiren ondoren oraindik ere⁴. Horren adibide dugu gure corpusetik kanpo geldituriko *Rimas*

⁴ Burdinaren topikoa ez da jasotzen errege familiaren omenezko poema guztietan. Halakoa dugu Felipe V.aren heriotzaren idatzitako *Endechas reales en vascuence* (Ondarra, 1993), Fidel Fitak Ber-

afectuosas y lúgubres en lengua bascongada izeneko poema anonimoa, Carlos III.aren emazte hil berri Saxoniako Maria Amalia erreginari eskainiriko *Parentación solemne* liburuan bildua, non burdinaren aipamena lehen lerroan bertan ageri den: «Vizcaico mendiac burdinarian / Uretara gaur sorturic, / Euren erriyuac vialcen dituzte / Juan-ari andibat arturic, / Ezin hitzàquin adi emanlèzan / Naibagarízco ichasuarí» (Cuenca, 1761, 239). Berriro ere Peruko euskaldunen diasporak monarkiarekiko atxikimendua erakusteko aukera ez du galduko, liburuaren azalaren arabera «reina de las Españas y emperatriz de las Indias» izandakoaren omenezko jarduera horretan. Ameriketara delako ere, subjektu euskaldunak burdina aipatuz irudikatzen du bere burua. Liman argitaraturiko poema horrek, Larramendiren *euskara* haren oihartzunak dituela (andoaindarraren poeman mendiek urrea eta burdina ematen dute, Limakoan burdina eta ura), berriro kontzientzia bikoitz bera erakusten du.

Kasu horietan guztietan subjektu euskaldunak bere euskaltasuna adieraztearekin batera formazio inperial hegemonikoak euskaldunaz eraikiriko irudia onartu eta bereganatu ere egin du, inperioaren subordinatu-subalterno posizioa zokoratzen duen objektu egoera, alegia. Euskarazko poema horietatik asko *justa* poetikoen testuinguruan sortuak dira baina lehiaketa horietatik kanpo ondutakoak ere *justa* poetikoetarako asmaturikoen antzerakoak dira, denek islatzen duten balore sistemari dagokionez. Hona hemen nola azal litekeen literatura horren egitekoa Antzinako Erregimeneko eremu hispaniarrean:

En cierto sentido se puede ver estas justas como un mecanismo de sugestión y defensa de valores políticos y religiosos, ya que significaban un reconocimiento tácito de distribución del poder, tanto dentro como fuera del campo literario. Por un lado se contaba con la intrínseca intención legitimadora de tales actos, por cuanto buscaban glorificar o ensalzar a una determinada figura salida del santoral o del

nardo Recio jesuita gaztelauari egotzia (ikus Goikoetxea-Maiza, 1967, 131). Era horretakoak dira XVII. mendeko beste poema bi ere, Felipe IV.aren heriotzaren eta Felipe Prospero printzearen jaiotzaren omenezkoak (Mitxelena eta Sarasola, 1990, 136-138 eta 224-231). Corpusa mugatzeko irizpideak (poemaren izena eta burdinaren topikoa) betetzen ez dituztelako utzi dira aipatu gabe, beste alde askotatik hemen landutakoekin bat egiten duten arren.

complejo monárquico-institucional. Pero las justas también eran contempladas como legitimadores internos del campo literario. [...] Las justas, dado su carácter oficial y su reparto de premios, oscilaban más hacia la seriedad temática y formal y la promoción y defensa de valores religiosos, políticos e ideológicos. (Gutierrez, 2005, 148-149)

Atal honetan agerturiko poema gehienak elkarren eskutik dabilzan monarkiaren edota erlijioaren interesak berrestera datoz, hau da, ordena simbolikoari atxikimendua erakutsi eta ordena berori erreproduzitzera, hegemoniko diren monarkiaren eta elizaren aldeko kontsentsua indartzera. Hortaz, ez da harritzekoa monarkia hispanikoaren formazio diskurtsiboak euskaldunetz sorturiko irudia bereganatua izatea poema horiek, burdinaren topikoaren erabilerak erakutsi duenez. Eta aldi berean poemen existentziak berak nahitaez eskatzen du formazio inperialaren subjektu gaztelaniadun aristokratikotik bereizten den subjektu euskaldun bat nahiz eta, bere burua irudikatzeke, haren begiradak itzultzen dion alienatu irudi bera onartzen duen, eta hain zuzen horregatik kontzientzia bikoitza deritzon nozio honen arabera azal daitekeen.

Burdinaren topikoa darabilten euskal poemen kopurua mugatua izanik ere, poema horien sorlekuak aski datu gogoangarriak dira. Poema guztiak Euskal Herritik kanpo sortuak dira, baina aldi berean komunitate euskaldunen diaspora garrantzitsuak dituzten hiri nagusienetarikotan: Sevilla, Salamanca eta Lima. Denak dira euskaldunek monarkia hispanikoaren zerbitzuan jarduera nabarmenak betetzen zituzten hiriak. Salamanca monarkiaren gobernu burokrazia osatuko zutenen prestakuntzarekin lotuta dago. Sevilla-Lima ardatzean inperioaren jarduera komertzial eta militarrek biltzen dira, burokratikoek gain. Horren bitartez euskal literatura eta kulturaren dimentsio atlantikoa agerian uzten da, kopuruz horren urria den diskurtso mota honetan bertan ere. Bartzelonaz den bezainbatean, horkoa ere inperioaren gudu egoerarekin lotzen da, nahiz eta kontzientzia bakoitzaren aldera lerratuta gelditu den azken batean.

Kontrasterako Euskal Herrian bertan, eta Bizkaian hain zuzen ere (formazio diskurtsibo hispaniarrak burdinarekin sarrien lotzen zuen lurraldean), sorturiko poema pare baten kasuak dauzkagu, zeintzuek ihes egiten dioten burdinaren topikoari, irudikatzen dituzten egoerek horretarako bide emango

zuketan arren, Egiaren laudoriozko kantuak jarduera militarren bitartez eta *Bertso bizkaitarrek* burdin mearen inguruko liskarrak aipatzen dituztenez gero. Hortaz, euskal subjektu literarioaren kontzientzia bikoitzaz den bezainbatean, badirudi euskaldunak objektu gisa irudikatzeko erabilitako burdinaren topikoa errazago onartuko duela diasporako subjektu euskaldunak Euskal Herri-tik mintzatzen denak baino. Horrekin batera diasporaren esperientziak dis-kurtso literarioari dagokion subjektu euskaldunaren kontzientzia bikoitza areagotu egiten duela susma liteke, Antzinako Erregimeneko euskal literatu-ra penintsularraz (baina aldi berean atlantikoaz) den bezainbatean.

Era honetako poemen aurrikuntza berriek esango dute hemen ateratako ondorio behin-behineko hauek onetsi ala gaitzetsi beharrekoak diren. Bur-dinaren topikoa kontzientzia bikoitzaren adierazle bakarra ez denez gero, ez eta garrantzitsuena nahitaez, pentsatzekoa da topiko horren arakatzeari hain hertsiki ez lotzeak bestelako ondorioz ekarriko zukeela. Era batera edo bestera, euskal subjektu literarioaren kontzientzia bikoitzaren genealo-gia luzean gogoan izan beharreko emaitzak dira.

Lan aipatuak

ALTUNA, Fidel, 2006, «Nafarrerazko “Romance Bazquenze a la deuocion de Ma-ria santissima”», *ASJU*, 40 (2006) 47-80.

APALATEGI, Ur, 2013, «Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdin-tez estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologi-koak», *452^a F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9 (2013) 56-77, http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf

AREJITA, Adolfo, 1988, «Domingo Heguiari kantua. Textoa eta lexikoa», *Litterae Vasconicae*, 4 (1988) 7-51.

ARMAS, Frederick de, 1986, *The Return of Astraea: an Astral-Imperial Myth in Calderón*, Lexington: University Press of Kentucky.

ARRIOLABENGOA, Julen, 2006, *Ibarguen-Cachopín Kronika. Edizioa eta azterketa*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Julen_Arriolabengoa_TESI.pdf

———, 2008, *Euskara Ibarquen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*, Bilbo: Euskaltzaindia eta BBK Fundazioa.

ATUTXA, Ibai, 2014, *Sabotajes de la cultura vasca. Acerca de la nación encima del canon y hacia una nación-otra bajo tachadura*, Valentzia: Valentziako Unibertsitatea, <http://roderic.uv.es/handle/10550/41403>

BIJUESCA, Koldo Josu, 2010, «Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendee-tako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren “Vuestra Merced”-en aitzakiaz», *Oihenart*, 25 (2010) 7-40.

———, 2013, «*Euskara eta vascuence* hitzen adiera metriko-poetikoaz: katebegi ostenduak, aroen mitoa eta periodizazio irizpideak euskal literaturaren historian», *Euskera* 58 (2013) 577-608.

———, 2013-2014, «Tierra sin poetas: para una genealogía de la subalternidad literaria en la Vasconia peninsular del antiguo régimen», *Prosopopeya. Revista de crítica contemporánea* 8 (2013-2014) 97-122.

BOURDIEU, Pierre, 1997, *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Bartzelona: Anagrama.

CARO BAROJA, Julio, 2002, *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Madril: Caro Raggio.

CUENCA, Victoriano, 1761, *Parentacion solemne*, Lima: Pedro Nolasco Alvarado.

DU BOIS, W. E. B., 2007, «[On Double Consciousness] from *The Souls of Black Folk*», in D. H. Richter (arg.), *The Critical Tradition. Classic Texts and Contemporary Trends*, Boston eta New York: Bedford/St. Martin's, 567-568.

GABILONDO, Joseba, 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: UPV/EHU.

———, 2012, «1. XVI. mendetik XX. mendera: apologistak eta subjektu euskalduna», in A. Aizpuru et al. (arg.), *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*, Bilbo: UEU, 9-27.

GILROY, Paul, 1993, *The Black Atlantic. Modernity and Double Consciousness*, Cambridge (USA): Harvard University Press.

GOIKOETXEA-MAIZA, Joan, 1967, «Larramendi'ren egun aundia Salamanca'n», *Euskera*, 12 (1967) 119-138.

GUTIERREZ, Carlos, 2005, *La espada, el rayo y la pluma. Quevedo y los campos literario y de poder*, West Lafayette: Purdue University Press.

HANCOCK, Ange-Marie, 2008, «Du Bois, Race, and Diversity», in S. Zamir (arg.), *The Cambridge Companion to W. E. B. Du Bois*, Cambridge (UK): Cambridge University Press.

KARDABERAZ, Agustin, 1973, *Euskal idazlan guztiak*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

KEREJETA, María Jose, 1991, «Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610», in Joseba Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (argk.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU, I, 161-183.

LAKARRA, Joseba Andoni, 1984, «Berto bizkaitarrak (1688)», *ASJU*, 18: 2 (1984) 89-184.

LARDIZAVAL, Martín de, 1724, *Oración fúnebre con que el Real Colegio de la Compañía de Jesús de Salamanca celebró las reales exequias de nuestro joven monarca D. Luis primero deste nombre y alguna noticia del aparato lúgubre que se dejaba ver en la iglesia de dicho Real Colegio, Salamanca?*

LARRAMENDI, Manuel, 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua vascongada*, Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz.

———, 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. Berrarg. faksimile-edizioan, Donostia: Txertoa, 1984.

LEGARDA, Anselmo de, 1953, *Lo vizcaíno en la literatura castellana*, Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

MARISCAL, George, 1991, *Contradictory subjects. Quevedo, Cervantes, and Seventeenth-Century Spanish Culture*, Ithaca (USA) eta Londres: Cornell University Press.

MIKOLETA, Rafael de, 1653, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, British Libraryko eskuizkribuaren ale fotokopiatua, Deustuko Unibertsitatearen Liburutegia.

MITXELENA, Koldo; SARASOLA, Ibon, 1990, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.

MODELELL Y COSTA, Francisco, 1656, *Iusta poética consagrada a las festivas glorias de María en su Immaculada Concepción mantenida en la parroquial Iglesia de Santa Maria del Mar de Barcelona*, Bartzelona: Narcis Casas.

MORALES, Luys de, 1610, *Fiestas del Corpus que el año de 1610 hizo el ilustrísimo señor Antonio Venegas de Figueroa Obispo de Pamplona, con un diálogo, cartel poético y poesías premiadas*, Iruñea: Nicolas de Asiayn.

ONDARRA, Francisco, 1993, «Hemezortzigarren mendeko bertsoak», *FLV*, 25-64 (1993) 531-554.

PEDROSA, José Manuel, 2008, «Sayagueses, charros, batuecos y sandios. Los mitos del rústico tonto en los Siglos de Oro», in F. Delpech (arg.), *L'imaginaire du territoire en Espagne et au Portugal (xvi^e-xvii^e siècles)*, Madril: Casa de Velázquez, 309-326.

REZA, Alma Linda, 2008, «Devoción inmaculista en Barcelona, 1652-1662. Una imagen triunfal de la monarquía hispánica», *Pedralbes*, 28 (2008) 761-788.

RODRÍGUEZ DE LA FLOR, Fernando, 1989, *Atenas castellana. Ensayos sobre cultura simbólica y fiestas en la Salamanca del Antiguo Régimen*, Salamanca: Junta de Castilla y León.

RODRÍGUEZ DE LA FLOR, Fernando eta GALINDO, Esther, 1994, *Política y fiesta en el Barroco, 1652: descripción, oración y relación de fiestas en Salamanca con motivo de la conquista de Barcelona*, Salamanca: Universidad de Salamanca.

SALAS BARBADILLO, Alonso Gerónimo, 1635, *Coronas del Parnaso y Platos de las musas*, Madril: Imprenta del Reino.

ULIBARRI, Koldo, 2011, «1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: *Cancion en lengua vascongada o vizcayna que contiene la sustancia deste sermon*», *ASJU* 45: 1 (2011) 361-385.

URGELL, Blanca, 1986, «Egiaren kantaz: I. Testua eta iruzkinak», *ASJU* 20: 1 (1986) 75-148.

YATES, Frances, 1999, *Astraea: The Imperial Theme in the Sixteenth Century*, Londres: Routledge.

Eranskina

Cantar

Egungo izena	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Cantar de Perucho	“Cantar le empiezo bizcuēça”	Gaspar Gómez, <i>Tercera parte de la comedia de Celestina</i>	1536	Mitxelena, 1990, 103
Cantar de Beotibar	“Cantares antiguos [...] en la [lengua] natural de la misma tierra”	Esteban de Garibay, <i>Los XL libros del compendio historial [...]</i> (26.15)	1571	Mitxelena, 1990, 66
Cantar de Mr. Chanfarron	“Cantar vascongado” “Cantar bascongado”	Juan Martínez de Zaldibia, <i>Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoana</i> Lope Martínez de Isasti, <i>Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa</i>	< 1575 1625-1626	Mitxelena, 1990, 106
Cantar de Juan de Lazcano	“Cantar en vascuence” “Cantar en vascuence” “Cantares en idioma cántabro”	Juan Martínez de Zaldibia, <i>Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas</i> Lope Martínez de Isasti, <i>Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa</i> <i>Compendio guipuzcoano</i>	< 1575 1625-1626 1687?	Mitxelena, 1990, 99

Egungo izena	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Cantar de Olaso	“Cantares antiguos del Vasconce”	Esteban de Garibay, [<i>Grandezas de España</i>]	1590-1596 (?)	Mitxelena, 1990, 89 (apud Guerra, «Ilustraciones genealógicas de los linajes bascongados [...] por Esteban de Garibay»)
Cantar del Conde de Salinas	“Cantar en vasquençe”	Ibargüen-Cachopin kronika	< 1598	Mitxelena, 1990, 98
Leloren kantua / Kantabriarren kantua	“Este cantar», «esta herecia», baina «cantares biscaínos», «cantares bascongados”	Ibargüen-Cachopin kronika	< 1598	Arriolabengoa, 2008, 59-62 baina Arriolabengoa, 2006, 94 koad. 71 eta 368 koad. 115

Canción

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Canción en lengua vascongada o vizcayna (Elizgizon gipuzkoar anonimoa)	“Canción en lengua vascongada o vizcayna”	<i>Sermón del día y fiesta de la invención de la Santa Cruz [...]</i>	1619	Ulibarri, 2011, 365

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Egiaren kanta, Domingo Heguiari kantua (Juan Bautista Alzola y Muncharaz)	“Canción vizcayna en me[t]ro vizcayno [...]”	Plegu inprimatua	1638 (?)	Urgell, 1986, 85 Arejita, 1988, 22
Bertso bizkaitarrak (Elizgizon bizkaitar anomimoa)	“Canción bascongada» (Respuesta a la canción bascongada que ha salido del Señorío [...])	Eskuizkribua	1688	Lakarra, 1984, 179

Romance

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Romance en vascuence (Pedro de Ezcurra)	“Romance en vascuence”	Anselmo Muñoz (?), <i>Relación de las fiestas que el Ilmo. Señor Don Antonio Venegas de Figueroa Obispo de Pamplona, hizo el día del Santísimo Sacramento [...]</i>	1609	Kerejeta, 1991, 162

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Romance del santissimo Sacramento, en Bascuence (Martin Portal)	“Romance del Santissimo Sacramento, en Bascuence” [“No huuo mas de un Romace bueno en bascuence, y no me espanto, que es propio desta lengua faltar en Romāce”]	Luys de Morales, <i>Fiestas del Corpus que el año de 1610 hizo el Illvstrisimo Señor Don Antonio Venegas de Figueroa Obispo de Pamplona [...]</i>	1610	Kerejeta, 1991, 175 (eta jatorrizko argitalpena: Morales, 1610, 80 r)
Romance vascuence (Francisco Bustamante)	“Romance bazqvenze a la deuocion de Maria Santissima”	Francisco Modolell y Costa, <i>Ivsta poetica consagrada a las festivas glorias de Maria en su Immaculada Concepcion [...]</i>	1656	Altuna, 2006, 74

Vascuence

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Vascuence(s) (Rafael de Micoleta)	“Vascuences”	Eskuizkribua	1653	Deustuko Unibertsitateko ale fotokopiatua

Vascuence (Manuel Larramendi)	“mi vascuence poético” (Baina «Euscara» ere bai)	Martin de Lardizaval y Elorza, <i>Oración fúnebre con que el Real Colegio de la Compañía de Jesús de Salamanca celebró las reales exequias de nuestro joven monarca D. Luis primero de este nombre [...]</i>	1724	Jatorrizko argitalpena: Lardizaval, 1724 (eta Goikoetxea- Maiza, 1967)
-------------------------------------	--	---	------	--

Euskara

Egungo izena (eta egilea)	Testuinguruko aipamena	Garaiko iturria	Urtea	Erabilitako bertsioa
Euskara (Manuel Larramendi)	“Euscara” (Baina «mi vascuence poético» ere bai)	Martin de Lardizaval y Elorza, <i>Oración fúnebre con que el Real Colegio de la Compañía de Jesús de Salamanca celebró las reales exequias de nuestro joven monarca D. Luis primero de este nombre [...]</i>	1724	Jatorrizko argitalpena: Lardizaval, 1724 (eta Goikoetxea- Maiza, 1967)
Euskara (Manuel Larramendi)	“Euscara”	Manuel Larramendi, <i>El imposible vencido: arte de la lengua vascongada</i>	1729	Jatorrizko argitalpena: Larramendi, 1729, 383, 385 eta 388
Euskara (Agustin Kardaberaz)	“Eusquera”	Agustin Kardaberaz, <i>Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac</i>	1761	Kardaberaz, 1973 1, 258